

“Benetan sinetsi behar dugu ikasteko beste modu batek emaitzak ematen dituela”

Kalitatezko hezkuntza bermatzeko zoru pedagogiko eta etikoa argitaratu du Hik Hasi Euskal Heziketarako egitasmoak, urtebetez hainbat aditurekin batera burututako gogoetaren ondorio. Hezkuntza hobetzeko hamar gako bildu dituzte bertan eta aitzakia horrekin mahai-ingurua egin dute Mondragon Unibertsitatean. Hona saioak eman duenetik hainbat puntu interesgarri.



Mikel Garcia Idiakes
@mikelgi

Hiru oinarri ditu Hik Hasiren proposamenak: hezkuntzak finantzaketa eta esku-hartze publikoa izan behar du, ikastetxe bakoitzak autonomia izan behar du, eta ezinbestekoak dira hezkuntza-eragileen arteko lankidetzak, gertuko administrazioaren inplikazioa eta herriko gainerako eragileen partaidetza. Gehiagorako eman du eztabaidak, Ane Ablanedo (Baionako Unibertsitatea), Nerea Alzola (Huhezi), Nora Salbotx (Nafarroako Unibertsitate Publikoa) eta Xabier Sarasua (Hik Hasi) mahaiakideen eskutik.

Haur Hezkuntzaren aitortza falta

“Bai ikuspegi klinikotik bai pedagogikotik, zenbat eta lehenago, orduan eta funtsezkoagoa da haurri zein heziketa ematen zaion. Alegia, 0-3 adina garrantzitsuagoa da 8-14 tartea baino, eta zer esanik ez unibertsitatean gertatu ahal zaizun edozer gauza baino, txikitzen gertatzen zaizunak eragin handiagoa baitu. Zentzu horretan, haur eskolan dauden hezitzaileen lana askoz garrantzitsuagoa da, unibertsitatean irakasle dagoenarena baino. Gizartean ordea, kontrako nagusitzen da: dituzten lan baldintzak okerragoak dira eta duten aitortza askoz txikiagoa”, uste du Ablanedok.

Helburu ekonomikorik gabe ikasitako hizkuntzak

Txostenak dio ikasleak euskaldun eleaniztun bilakatu behar dituela eskolak. Kultur aniztetera zabalik dagoen euskara du buruan Salbotxek: “Hizkuntzak ikastea garrantzitsua da, baina ez gure gizarte globalizatu eta neoliberalak eskatzen eta inposatzen digun hizkuntzen ezagutzari erantzuteko (alegia, ez kapitalak motibatuta edo gure enpresa etorkizunean deslokalizatu daitekeelako), norbanakoen premiei eta pertsonaren garapenari erantzuteko baizik; harremanak izateko, komunikatzeko. Horregatik, hizkuntza horrek ez du zertan ingelesa, alemana edo txinera izan, nire bizilagunaren hizkuntza gutxiagotua izan daiteke. Finlandian esaterako, planteamendu malgua dute: edozein lekutatik etorkinak datozenen, ikasle berriari galdetzen diote zein den bere ama-hizkuntza, eta hiruzpalau haur baldin badituzte hizkuntza hori dutenak, hizkuntza horretako maisu-maistra bidaliko dute eskolara. Ama-hizkuntzan eta bertako hizkuntzan gaitasun maila ona lortzea eta batetik bestera gertatzen diren trantsizioak baloratzea dute abiapuntu”.

Nolako irakaslea nahi du ikasleak?

Alzolaren esanetan, irakasle onak behar du “kanpokoa eta norberaren burua zailentzen jartzeko gaitasuna; pentsaera dibergentea suspertzeko eta galderak egiteko gaitasuna. Irakasle ona da orientatibideak ematen dituen, pertsona ba-

koitzak bere burua ezagutzen eta gartzatzen laguntzeko, eta giza-komunitatea osatzen laguntzeko”. Irakasleen jarrera ere ezinbestekotzat du, “aldaketak egin ditzakegula sinestea”.

Salbotxek gehitu du ikasleei eurei galdetzea ere baliagarria dela. Unibertsitateko bere ikasleei galdetu die, eta haien erantzunak irakasle ona da “bere lanarekiko pasioa sentitzen duena eta horrekin emozionatzeko gai dena, hala besteak motibatuzko gai izango delako”. Ume diren ikasleei ere galdetu diete, eta zerrenda ekarri du Salbotxek: irakasle izan nahi duen horrek “haurren izenak jakin beharko ditu, aldika errieta egin beharko digu, olerkiak idatzi beharko ditu, gurasoei gure sekretu zenbait kontatu beharko dizkie, dantzan eta kantuan aritu beharko du, lan politak egiten eta ipuinak kontatzen jakin beharko du, triste dauden haurrak animatu beharko ditu, haurrak erlaxatzen lagundu beharko du, eta haiekin egunero-egunero hitz egin beharko du”. Eskari xumeak lehen begiratuan, “baina banaka aztertuko bagenu, izugarri sakonak direla iruditzen zait”.

Sar dadila haizea eskolan

Herri-hezitzaileen ideia ere Hik Hasiren proposamenaren oinarri-oinarrian dago. Salbotxen hitzetan, “ikastetxearen inguruan badago jendarte bat, badao mundua ikusteko era bat, hizkuntza praktika batzuk... Jakintza handia dago, baina jakintza horretatik guztitik



» **ANE ABLANEDO:**
 “Haur eskolan dauden hezitzaileen lana askoz garrantzitsuagoa da, unibertsitateko irakasleena baino. Lan baldintza okerragoak eta aitortza askoz txikiagoa dute, ordea”

Ezker-eskuin, Ane Ablanedo, Nerea Alzola, Xabier Sarasua eta Nora Salbotx.

zati bat irakasten da eskolan, nork dio zer den irakatsi beharrekoa? Goazen eskoletako paretak botatzera eta haizea sartzen uztera”. Ablanedorentzat, “paradigma aldaketak ekarriko du hori. Eskola ez da ikastegi bakarra: ebidentzia bat da, baina iraultzailea ere bada, zeren adibidez ikusten dugu ume bat eskolara joaten ez dena eta pentsatzen dugu ez duela ikasiko. Baina ikastea baldin bada gauza bat berez egiten duguna, ezin da ez-ikasi. Eta modu askotan ikasten dugu, eskolan eta eskolatik kanpo. Eskolak bizitzan integratu behar ditugu, eta horrela irudikatuko dugu hobeto zer den hezkuntza komunitate bat”.

Eskola libreak, perretxikoen pare

Egun dugun hezkuntza sistema aintzat hartuta, egingarria al da horrelako proposamen bat? Sarasuaren arabera, konfiantza da gakoa, “guk geuk ez badaukagu konfiantzarik, gainerakoei ere ez baitiegu erakutsiko konfiantzan hezten. Batzuetan kosta egiten zaigu gauden *confort* egoeratik ateratzea, gure lubakietan gotortzen gara, eta inertzia apurto eta aurrera egiteko hitz egitea, eztabaidatzea eta konfiantza izatea da bidea. Gure proposamena ez da lege artikulatu bat, norabide bat baizik”.

“Hezkuntza sistematik kanpo dauden eskolak perretxikoak bezala ari dira sortzen, eta horrek zerbait adierazten du –azpimarratu du Ablanedok–. Ikastolekin gertatu zen bezala, nago bigarren itzuli

baten atarian ez ote gauden, hausnarketa eta gauza berrien peskizan. Hori guztia egituratu beharko genuke, borondatea, interesa eta ezinegona egon badaudelako”. Sarasuak gogoratu duenez, eskola berritzaileago horiek beste hainbat herrialdetan badute lekua hezkuntza sisteman, “baina hemen ez, eta sistemari dagokio irekitzea eta aniztasun hori ere hartzea”.

Publikoko entzule batek, ordea, zail ikusten du hezkuntzaren paradigma aldaketa. Nola hezi bestelako konpetentzietan, Selektibitatea edo Baxoa bezalako azterketarako prestatu behar baditugu ikasleak? “Ikasleak mamu horretarako prestatu behar ditugula saltzen digute, baina sistemak jartzen dizkigun muga eta traben aurrean, apurto ezin baditugu, ikasi behar dugu gutxienez ziria sartzen: pasa behar bada, pasako dugu, baina Selektibitatea hilabete batzuetan prestatu daiteke, eta aurreko denbora guztian beste gauza batzuk emango ditugu. Eskola libreetan aritzen diren asko eta asko gero unibertsitate-ra joaten dira, edo lehenago instituturara egiten dute jauzi; azterketa horretarako prestatzen dira une jakin batean eta kito”, erantzun du Ablanedok.

Zein ikasle dago prestatuago?

Publikoko entzuleak, baina, ez du hain argi. Haren esanetan, Selektibitateko edukiak barneratzeko gaitasun handiagoa izango du hezkuntza tradizionalen formatu den ikasleak, bestelako konpe-

tentzia eta baloreak barneratu dituenak baino. Ablanedo ez dago ados: “Ez nago hain seguru lehenak trebeagoak izango direnik. Benetan sinetsi behar dugu ikasteko beste modu batek emaitzak ematen dituela eta konpetentzietan hazi denak ahalmen handiagoa izan dezakeela, baita etsamina hori bera egiteko ere. Lehenak trebezia handiagoa izango du beharbada azterketa mota horretan, ezaguna zaiolako, baina beste gaitasun batzuk itzaliak izan ditzake, halako probei aurre egiteko ere garrantzitsuak izan daitezkeenak. Eta azken finean, sakonean apustu egin behar da: demagun hezkuntza tradizionala jaso duen ikaslea trebeagoa dela azterketa gainditzeko, baina zein prezio-tan? Zenbat gauza inportante utzi ditu bidean? Bizitzaren aurrean hartu nahi dugun jarrera erabaki eta horren aldeko hautua egin behar dugu”.

Eskola alternatiboez izan da entzuleen artetik egin duten azken galdera. Bai, bestelako hezkuntza bat dute oinarri, “baina ez dira doakoak, eta ideiekin ados egon arren, elitista bilakatzen dira sarri”. Ablanedok hartu du hitza: “Nik ere nahiko nuke denentzat izatea horrelako eskola eredu, eta uste dut gakoa dela hain juxtu proiektu hauek sortzen dituztenek ere hori bera dutela helburu, borondate publikoa dutelako, ez dago diru-asmorik eta familientzat garestia den arren, hor lan egiten dutenek oso gutxi irabazten dute”.ⁿ